

JASANGARRITASUNA EIKAN 2024

Eikan jasangarritasuna hazkunde ekonomikoa sortzeko gaitasun bezala ulertzen da, beti ere etorkizunerako baliabide naturalak zainduaz eta egungo eta etorkizuneko gizartearen ongizatea kontutan harturik.

Gure negozioak jasangarritasunarekin lerrokatzen direla bermatzeko, urtero plangintza bat osatzen dugu helburu jakin batzuk ezarriaz eta hauei loturiko ekintzak zehaztuaz.

Hiru lerrotan zabaltzen da jasangarritasuna, Eikan ematen diren prozesu desberdinetan eragiten duelarik: INGURUMENA, SOZIALA eta GOBERNANTZA.

Ingurumena Aldaketa klimatikoa

Eika gara

Gaur egun ezinbesteko ikusten da jarduera-esparru bat ezartzea klima-alaketaren erronkei aurre egiteko eta planetaren jasagarritasunari laguntzeko.

Eikan klima-krisia premiazkoa dela onartzen dugu, eta hari aurre egiteko gure esku dauden neurriak hartzeko konpromisoa daukagu, berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak murrizteko arintze neurriak ezarriaz eta gure operazio eta produktuak klima alaketaren inpaktuei aurre egiteko egokituaz.

Horretarako ENERGIA KOMITEA eratu genuen eta urterik urte kontsumitutako energiaren neurketak fintzen jarraitzen dugu, baita kontsumoa

murrizteko ekintzak burutzen ere.

Lantalde honen lanari esker Energiaren Kudeaketan zertifikatu gara ISO 5001 lortuaz Aenor-en eskutik.

2024ean gure Energiaren kontsumoaren 1.38% gure panel FOTOBOLTAIKOEK sortua izan da.

Bestalde, Ondoan-en datu baseari esker, gure organizazioaren KARBONO AZTARNA 3. Irismenerarte kalkulatu ahal izan dugu, gure gehiengo eragina irismen honetantxe batez ere batzen dela ikusiaz.

3. Irismen honetan producktuaren erabileran dago eraginik nabarmenena

ton CO ₂ equiv	EBB	EMX
1.Irismena	159,23	944,96
2.Irismena	1888,31	2019,62
1+2 Irismenak	2047,54	2964,59
3. Irismena	4678389	5417362
TOTALA	4680436	5420327
		10100764



Ekonomia zikularra

Zirkularra gara

Ekonomia Zirkularra, baliabide ekonomikoen aprobezatzeko maximoa bilatzen duen sistema ekonomiko bat da. Horretarako, lau estrategia hauek planteatzen ditu: Birpentsatu, Bizitza aktiboa luzatu, Baliabideen optimizazioa, Ziklo itxiera.

Gure diseinuak materialen erabilera murriztera bideratzen ditugu, baita efizienteagoak izatera ere. Horretarako foku erradiatzaileen linea berri baten garapenean gabiltza.

Bestalde, gure prozesuan sortutako HONDAKINEN birziklapenean lanean jarraitzen dugu. Dagoeneko birziklapen tasa altua lortu dugu:

2022tik 2023 %70eko murrizketa eman zen zabortegira bideratutako hautsean.

2023tik 2024 %17.5eko murrizketa eman da.

Aurten lanean dihardugu kopurua murrizteko, nahiz eta gero eta erronka zailagoa den.



Arlo soziala

Soziala gara

Gure jasangarritasun ildoan batzen diren talde sozialak ondokoak lirateke:

- Gure langileak
- Langileak hornikuntza katean
- Eragindako komunitateak
- Produktuaren azken erabiltzaileak

Gure langileen artean lan giro inklusibo eta errespetuzkoa bermatzea nahi dugu, non pertsona guztiak balioetsiko diren beren trebetasun eta ekarpenetatik, edozein dela ere haien generoa, arraza, erlijioa, adina, sexu-joera, identitatea, genero adierazpena, desgaitasuna edo legeak babestutako edozein ezaugarri.

2024ean BERDINTASUN PLANA aurkeztu dugu eta 2025ean plan honetako ekintzak martxan jarriko ditugu.

Laneko Segurtasun eta Osasunetik abiatuik ONGIZATEAK lehentasun izaten jarraitzen du Eikakarentzat eta GARATUZ programarekin lanean jarraitzen dugu.

Gure burua Kooperatiba EUSKALDUNTZAT definitzen dugu eta horretarako ere lanean dihardugu. 2024ean BIKAIN ZIURTAGIRIA berriztu genuen.

TALENTUA erakartzeko lanean dihardugu sare sozialetan ikusgai gaudelarik:

- Instagram-en Eika Spare Parts bezala [@eikaspareparts](https://www.instagram.com/eikaspareparts)
- LinkedIn-en EIKA bezala <https://www.linkedin.com/company/9464470/admin/dashboard/>
- Facebook-n Eika Spare Parts eta EIKA bezala https://www.facebook.com/eikakoop/?locale=es_ES
- TikTok ean Eika Spare Parts bezala <https://www.tiktok.com/@eikaspareparts>

Lehen aldiz TFG-TFM sarietan parte hartu dugu, Eikak sari berezi bat banatu duelarik: Euskaraz eginiko proiektu onena

2024 ean Enplegu foroetan eta heziketa zentruetako antolaturiko jardunaldietan parte hartzen jarraitu dugu.

Langileak hornikuntza katean

Gure hornikuntza katean, hornitzaileekin lankidetzan aritzea dugu helburu, giza eskubideak urratzeko, nahitaez lan egiteko, gatazka armatuak finantzatzeko, osasun eta segurtasun-arazoak finantzatzeko, ingurumena kutsatzeko edo deforestaziorako arriskua duten materialen eta produktuen presentzia eta jatorria identifikatzeko, aplikatzekoa den araudia betetzen dela ziurtatuz.

AEBetako Dodd Frank Legearen 1502 atalean oinarritutako gatazken eta arrisku handiko eremuetako mineralen meatzaritza arduratsuari buruzko baldintzak betetzeko eskatzen diegu gure hornitzaileei. Conflict Minerals delako CMRT galdetegia hartzen dugu oinarritzat gure lehen gaiak aipatutako lurralde edo mehatzetatik ez datozela ziurtatzeko. Era berean gure bezeroak informatzen ditugu jasotako informazioa beraiei helaraziz.

Eragindako komunitateak

Kooperatiba zenak gure inguruko komunitateak zaintzera garamatza.

Hala bedi, adibide gisa eskualdeko kooperatiben mahaian parte hartzen dugu beste gauza askoren artean kooperatiba berrien sustapenean lagunduz.

Urtero IPDK-k banatzen dira, eskualdeko kultur, kirol eta formakuntzatarako bideratuaz. IPDK-k

heziketa eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa.

Produktuaren azken erabiltzailea

Produktuaren azken erabiltzaileaz harreman zuzenik ez dugun arren, gure produktuaren erabileran beraien segurtasuna bermatzeko beharrezko arauetan zertifikatzen gara herrialde bakoitzean: European VDE, UL EEBB-an, CQC Txinan eta KC Korean.

Bestalde, aplikagarriak diren legediak betetzeko bijilantzia eta jarraipen lanak egiten ditugu. Hala nola, RoHS, REACH... eta gizakiarentzako eta naturarentzako arriskutsuak diren osagaiak mugatzen dituzten gainontzeko araudiak ere betetzen ditugu. Horretarako gure hornitzaileei ezinbesteko eskakizun bezala bete ditzaten eskatzen diegu eta urteroko jarraipena egiten dugu horrela dela ziurtatzeko.





Gobernantza arloa

Gobernantza gara

Eika taldeak Eikak jarduten duen herrialdeetan indarrean dauden lege eta arauak betetzeko konpromiso irmoa dauka, baita araudia hain zorrotza ez den herrialdeetan ere. Helburu honekin honako politika, jarduna kode eta eskuliburuak prestatu ditugu:

- Eikako jardura kodea
- Arrisku penalak prebenitzeko eskuliburu
- Gatazka edo jazarpen moralari edo eta sexuan oinarritutakoari aurre egiteko jardura protokoloa
- Oparien politika
- Ustelkeriaren aurkako politika
- Diru Laguntza politika

Halaber, gure langileei formakuntza luzatu zaie guztiaren inguruan Eika App bitartez. Mugikorrean gure aplikazio propioa daukagu non komunikazio guztiak jasotzen ditugun.

2024ean gainera SMETA-n zertifikatu gara, bai Etxebarrian baita Mexikon ere. SMETA auditoretza bat da, laneko, osasuneko eta segurtasuneko, ingurumen-jarduerako eta etikarekin loturiko estandarrek neurtzen dituenak, enpresaren eragiketen barruan eta baita hornitzaileengan ere.





HEADQUARTERS

Eika S.COOP.
Urresolo, 47
48277 Etxebarria, Bizkaia
SPAIN

Tel.: +34 946 167 732
Fax: +34 946 167 746
E-mail: eika@eika.es

MANUFACTURING PLANTS

EIKA MÉXICO S.A. DE C.V.
Av. de las Misiones 10 Módulo 7
Parque Industrial Bernardo Quintana 3ª
Sección
El Marques 76246, Querétaro
MÉXICO
Tel. + (52) 442 221 64 96
Fax. + (52) 442 221 62 18
E-mail: eikamexico@eikamexico.com